

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Infernuko irakaspenak eta adinak emandako esperientzia



Nothing but a bad day.
The Hot Dogs.
GP.
Iraupena: 39'14".
10 euro.

HONAKO HAU Urretxuko talde rockeroaren laugarren lana da eta beraien hastapen luzean infernuraino heldu eta bertan ia erre baziren ere, orain dela urte gutxi *III* izeneko lanarekin bizidunen artera bueltatu ziren. Itzulerakoa lan dotorea eta oso landua bazen ere, ez zen hain bizia; baina oraingoan bai, jakin dute fintasuna eta taldearen berezko energia, biak, uztartzen. Taldearen eskarmentuaren eta gaur egun bizi duen egoeraren ispilu, AC/DC eta

Rolling dinosauroen arima bizi-bizirik dago, hainbat kantutan *The powerhouse* lanaren bat-batekotasuna lortu dute, riff-ak ikaragarriak dira, baina aldi berean AEBetako hegoaldeko rockera eta sonoritate ilunagoetara ere hurbiltzen badakite. Bestalde, ingelesez abestutako istorioak gero eta bereziagoak dira eta zuzenean ez dute lehenagokougarra galdu.

www.myspace.com/hotdogsarmy

Jon Iturbe - The Hot Dogs

«Agertokira igo aurretik komunera joan beharrean ez bazaude, zerbait ez dabil ondo»

You can bet it. Oraindik gauza asko daukazue esateko?

Entseatzeko abesti bat, idazteko hitz bat edo kontzertu bat dagoen bitartean jarraituko dugu taldearekin. Guztiok daukagu argi egunen batean hau bukatuko dela, baina ez dugu horretan pentsatu nahi. Egiten duguna gustuko dugu? Bai. Ba beste guztia bigarren mailakoa da.

Scary. The Hot Dogs!-ek dagoeneko badio zerbaiti beldurra?

Beti izaten zaio beldurra zerbaiti, eta zure onena emateko ezinbestekoa dela ere uste dut. Zure sabela ez bada matxinatzen edo agertokira igo aurretik komunera joan beharrean ez bazaude, zerbait ez dabil ondo.

Can't change mine kantak beste gorputz bat dauka eta beste guztiez aldentzen den sonoritatea du...

Nigandik irten zen, baina Inigok borobildu zuen. Insomnio gau bateko ideia parrastada da; oso gustuko ditut kanta horren hitzak. Musikari



dagokionez, hasieratik tempo egoia harrapatzen ez badiozu magia galtzen du; baina harrapatuz gero nire kuttunenetako bat da.

You can bet it, Can't change mine, Alive eta *Animal thirst* kantek aurrerako begirako ihesaldia erakusten dute...

Urteen poderioz hitzak beste modu batean ikusten ditut. Gaur egun garrantzi handiagoa ematen diot fonetikari, nahiz eta mezua zaindu.

Etxean grabatu duzue, Urretxuko antzokian...

Bai, oraingoan diskoa grabatzen hasi aurretik kanta maketatu egin genituen. Antzokian lortutako soinuk txundituta utzi gintuen. Oinarri horrekin Madrilerara jo genuen Astrayen estudioa, baina konturatu ginen onena zela antzokira itzultzea, eta Astrayen estudio mugikorarekin bertan berrituz grabatu genuen guztia. Oso gustura gaude lortutako emaitzarekin. ■